

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Jose Angel Petralanda Gil  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
María Rosario Arcarazo Arcarazo  
Aitor Urrutia Oianguren  
Jose Luis Canterio Morcillo  
Juan Luis Merino Sababria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko abenduaren 20an, arratsaldeko seiak eta erdian, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Martinez andrea eta Ezpeleta jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 20 de diciembre de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Martínez y el Sr. Ezpeleta.

**1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2012-10-18an egindako osoko bilkuraren akta onartu da.

**2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2.1- Hartutako erabakien gainekeo informazioa.

2012ko abenduaren 17ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berariaz jakinarazi dira ondorengo kreditu aldaketa proposamenak onartzeko hartutako erabakiak.

**KREDITU ALDAKETA.ZKIA:17**  
**KREDITU TRANFERENTZIA PROPOSAMENA**  
**Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0501.227.442.10.13	Mankomunitatea: Ingurumena, zaborra	291.245,51	340,00	290.905,51
<b>GUZTIRA ...</b>		<b>291.245,51</b>	<b>340,00</b>	<b>290.905,51</b>

**Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0405.625.452.20.01	Kiroldegiko makinak	3.000,00	340,00	3.340,00
<b>GUZTIRA ...</b>		<b>3.000,00</b>	<b>340,00</b>	<b>3.340,00</b>

\* Aurrekontu-partida berriak sortu ahal izango dira

**KREDITU ALDAKETA.ZKIA:20**

**SARRERAGATIKO KREDITU GAIKUNTZA BIDEZKO KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA  
OSATZEN DUTEN SARRERA ETA GASTU PARTIDEN KONTZEPTUEN AURREKONTUAREN  
EGOERA-ORRIA.**

**Diru-sarreren egoera**

Kreditu gaikuntza finantzatzen duten diru-sarrerak honako hauek dira:

Aurrekontuetako kontzeptua	Izena	Previsión inicial	Previsión definitiva	Diferencia
2.0201.710.000.00.02	Eusko Jaurlaritza: teknologia berrientzko diru laguntza: biblioteka.	0,-	3.740,00.€	3.740,00.€
<b>TOTAL</b>		<b>0,-</b>	<b>3.740,00.€</b>	<b>3.740,00.€</b>

**Gastuen egoera**

Proposatutako kreditu gaikuntzek aurrekontuko ondorengo partidetan dute eragina:

Aurrekontuko partida	Izena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aldea
0401.626.451.30.01	Informazioa prozesatzeko ekipoak: biblioteka.	0,00 €	3.740,00 €	3.740,00.€
	<b>GUZTIRA</b>	0,00.€	3.740,00€	3.740,00.€

## 2.2.- Hainbat adierazpen.

### 2.2.1.- ALKATEAREN GONBIDAPENA “HERRIRA MUGIMENDUAK” DATORREN URTARRILAREN 12RAKO DEITUTAKO EKITALDIRA JOATEKO.

Alkateak ondorengo gonbidapena egin du:

Kaixo guztioi,

Euskal Presoek pairatzen diharduten egoera larria dela eta, udal honetako alkate eta zinegotziok elkareratze hau deitu nahi izan dugu. Giza Eskubideen Deklarazioaren edukiak aintzat harturik, euskal presoei aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrik gabe uztea eskatzen dugu.

Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea eskatzen dugu, kartzelan dauden pertsonek eskubidea baitute zigorra etxetik hurbil betetzeko. Bestetik, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditu daitezela, eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia bete dadila eskatzen dugu. Hartara, zigorra bete duten 67 presoak libre gera daitezten.

Euskal gizartea apustu garbia egina du bakearen eta giza eskubideen errespetuaren alde. Aldiz, Gobernuek entzungor egiten diote behin eta berriz. Aitzitik, salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute, bai zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, eta baita gizarte osoari ere. Bestalde, neurri hauek desagerrarazteko aski litzateke legeria arrunta aplikatzea.

Salbuespeneko neurri horiek hor diharduten artean ezbeharrek, istripuek, heriotzek,... eguneroko ogia izaten jarraituko dute. Hain zuzen, bihar bederatzi urte beteko dira Karmele Solaguren Barañaingo bizilaguna hil zenetik trafiko-istripu batean, bere senar José Luis Gerrarekin batera bion seme Ekaini bisita egitera joan zirenean Madrilgo kartzela batera. Gure ustez, bereziki mingarría da urteurren hori, Karmeleren heriotza eragin zuen errealtitate bera sufritzen baitute gaur egun ere beste pertsona askok. Aruten, esate baterako, hamasei istriputan, presoen berrogei bat senitarteko edo adiskidek izan dute kalteren bat, larritasun maila desberdinakoak.

Horren guztiaren aurrean, hemen bildu garen alkate eta zinegotziok, honako urrats hauek emateko konpromisoa hartzen dugu:

1.- Espainiako Gobernuari eskatzen diogu presoen eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espetxe politika aplikatzeko. Neurri hauek zigorra bizilekutik hurbil betetzeko eskubidea eta osasun eskubidea bermatu behar dituzte, baita beraien zigorra bete duten presoen askatasuna eta zigorren 3/4ak (edo 2/3ak) bete dituztenen baldintzapeko askatasuna.

2.- Gure kezka adierazi nahi dugu astebururo presoen senitarteko eta lagunek sufritzen duten arriskuaren aurrean, eta elkartasuna adierazi sakabanaketaren biktima guztiei.

3.- Herriko bizilagun presoen giza eskubideen defentsan lan egiteko, eta haien senitarteko eta hurbilekoen egoera arintzeko egin dezakegun guztia egiteko konpromisoa berresten dugu.

4.- Giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko prestutasuna adierazten dugu, betiere modu eraikitzalean egiazko konponbideak bilatu nahian.

Merino jaunak adierazi du IU bezala adierazpenarekin eta mobilizazio asmoarekin bat datozena, baina, IU bezala ez direla inongo mobilizaziora joan behar, beraien ustez oraindik urrats asko eman behar direlako jende gehiago batzen saiatzeko.

### **3.- MARIA ROSARIO ARKARAZO ARKARAZO ANDREAK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.**

Udalbatzarrari jakinarazi zaio Maria Rosario Arcarazo andreak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusitakoa betez, ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitorpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen, eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Maria Rosario Arcarazo Arcarazo andrarei bere kargua eman dio.

### **4.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, ondorengo gai hauek gai zerrendan sartzea berretsi da:

- GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOPERATIBA ELKARTEARI DIRU LAGUNTZA EMATEA.

### **5.- LEINTZ UDAL EUSKALTEGIRAKO UDAL ORDEZKARI BERRIA IZENDATZEA.**

Iker Akizu Olabe zinegotziak bere karguari uko egiteko idazkia aurkeztu zuen 2012ko azaroaren 5ean.

Udalbatzarrak uko horren berri jaso zuen eta uko hori 2012ko azaroaren 15ean gauzatu zen.

Iker Akizu Olabe udal ordezkari izendatuta zegoen LEINTZ UDAL EUSKALTEGIAN, hain zuzen, lehendakaria edo lehendakariordea izateko, estatutuen arabera egokitzen dena.

Hori kontuan izanik, beharrezkoa da udal ordezkari berria izendatzea LEINTZ UDAL EUSKALTEGIAN.

Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzailearen proposamenarekin bat etorri, Urrutia, Merino eta Cantero jaunen abstentzioarekin eta beste guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

BEÑAT HERCE LECETA izendatzea udal ordezkaria LEINTZ UDAL EUSKALTEGIAN lehendakari edo lehendakari kargurako, estatutuen arabera egokitzen dena.

### **6.- GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOPERATIBA ELKARTEARI DIRU LAGUNTZA EMATEA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOO.ELK. enpresarekin hitzarmena sinatzea. Alde bakoitzak hartzen dituen konpromisoak honako hauek dira:

*Lehenengoa.- Hitzamen horan GOIENA kooperatibaren eta Eskoriatzako Udalaren arteko 2012. urteko lankidetza zehazten da, Goiena Telebista eta Goienkaria hedabideei dagokionean.*

*Bigarrena.- Eskoriatzako Udalak 32.067 euroko diru laguntza emango dio GOIENA kooperatibari 2012. urtean.*

*Hirugarrena.- Diru laguntza hori ordainketa bakarrean ordaintuko du Eskoriatzako Udalak 2012ko abenduan.*

*Laugarrena: 2013ko hitzarmena eta Udalaren Aurrekontu Orokorra onartzen ez den arean, 2012ko hitzarmen hau egongo da indarrean eta hitzarmen horan jasotako klausulak aplikatuko dira. 2013ko Udal Aurrekontu Orokorra onartutakoan, lankidetza-hitzarmen hau indar gabe geldituko da eta berria sinatzeko proposamena egingo da*

*Bosgarrena.- Kooperatibaren Estatutuen arabera bazkide laguntziale den Eskoriatzako Udalak, GOIENA kooperatibaren jarduna eta diru kontuak barrutik ezagutu ahal izango ditu. Hala ere, urteroko hitzarmena zehazterakoan aurreko urteko gastuen zuriketa eta ekintzen memoria aurkeztuko dizkio kooperatibak Eskoriatzako Udalari, hurrengo urteko lehen hiruhilabetekoan.*

*Seigarrena.- GOIENA kooperatibaren hedabideetan Eskoriatzako Udalaren laguntza toki nabarmenean agertuko da.*

*Zazpigarrena.- Eskoriatzako Udalak ez du bere gain hartzen hitzarmen horan espresuki agertzen ez den erantzukizunik.*

*Zortzigarrena.- Goiena kooperatibak hitzarmen horan jasotakoak betetzen ez baditu, kontratu hau bukatutzat emango du Udalak eta ordaintzeko geratzen diren diru laguntzaren zatiak ez ditu ordaintuko.*

**Bigarrena.-** Udalak hartutako betebeharra betetzeko, GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP.ELK.ari 32.067 euroko diru laguntza ematea 0402.481.521.20.01 partidaren kargura. Emandako kopurua berehala ordaintzea.

**Hirugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari aipatutako hitzarmena sinatzeko Udalaren izenean eta ordezkaritzan.

## **7.- HIZKUNTZ ESKAKIZUNA IZENDATZEA HAINBAT LANPOSTURI.**

Udal honetako Euskarako zerbitzu teknikoak egindako txostenaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Sailburuordetza 2012-11-26an egindako txostenaren arabera, eta Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Egindako proposamenaren eta txostenekin bat etorriz, eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeko 97.5 artikulua eta Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 1997/86 Dekretuko 23. artikulua betez, ondorengo lanpostuei ondoren adierazten diren hizkuntz eskakizunak onartzea:

B peoi lurperatzailea	1.HE	2012-12-20
Administrari laguntzaile partekatua	3.HE	2012-12-20
Gazteria teknikaria	4.HE	2012-12-20
Museoko ekonomia eta administrazio kudeatzailea / turismo kudeatzailea	4.HE	2012-12-20
Museoko teknikaria	4.HE	2012-12-20
Kontuhartzailetzako erdi mailako teknikaria	3.HE	2012-12-20
Zerbitzu ekonomikoetako erdi mailako teknikaria	3.HE	2012-12-20
Udaltzaina	3.HE	2006/05/10

## **8.- EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI S.A.-K JARRITAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA.**

Gizarte Ongizateko Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** EZ ONARTZEA, ondoren adieraziko diren arrazoiengatik, EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA enpresak 2012ko urriaren 18an Udalbatzarrak hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertzearreko, eta ondorioz, Udalbatzarrak hartutako erabaki hori berrestea. Erabaki horren bidez 22.495 €-ko zigorra ezarri zitzaien EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA enpresari ez zituelako bete “1 zenbakitik 9 zenbakira SAN PEDRO BERRURBANIZATZEKO” proiektuko obra kontratuko oinarritzko baldintzak.

### **ARRAZOIAK:**

- Aurkeztutako errekurtsorekin ez da indargabetzen zigorra jarri aurretik frogatutako egitate bat bera ere.
- Adierazten duten EEEak prozesu bat izango zuela uste da, ez zela izango egun batetik besterairtendako zerbaite. Horregatik, eskaintza egin zutenean, jakinean egongo zirela uste da. Hori dela eta, eskaintza egin zutenean ez zeukaten zergatik jarri behar 4 pertsona kontratatuko zirela, obra osoan zehar ezin izango zutela jakinda, zeren eta horrek eman zion irabazteko ahalmena.

Hala ere, EEErena ezer jakin gabe jarri bazenuten, gogorarazten dizuegu kontratua kontratistaren gain eta kontura exekutatzentz dela, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzentz duen azaroaren 14ko 3/2011 legegintzako errege-dekretuko 215. artikuluan jasotakoaren arabera (azaroaren 16ko BOE).

- Esaten dute ere, 4 kontratu egin zirela, baina, horrek ez du esan nahi 4 pertsona kontratatu zirela obra osoan zehar.

**Bigarrena.-** Zigor horren zati bat kobraetza -10.591,20 euro- obren azken ziurtagiri-kitapenaren kontura.

**Hirugarrena.-** Ezarritako zigorraren gainerako zatia (11.903,8 euro) ordaintzeko eskatzea EXCAVACIONES OLLOQUIEGUI SA enpresari. Ordainketa egiteko 10 laneguneko epea izango da erabaki hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita, eta berariaz ohartarazten zaio horrela egingo ez balu, hau da, epe horretan ordainduko ez balu, premiamendu prozedura bidez kobrauko dela; eta beharrezkoa balitz, behin betiko bermearen kontura.

**Laugarrena.-** Ezarritako zigorra kobraeteko beharrezko erabakiak hartzeko ahalmena ematea Alkate jaunari.

Merino, Cantero eta Urrutia jauna berariaz azaldu dira proposamenaren alde. Urrutia jaunak, hausnarketarako balio dezan egiten duela adierazi ondoren, galdu du Udalbatzarra hain zorrotza izango ote zen kasu guztietan, eta adibide bezala aipatu du GOITUK Zaldibar antzokiko obretan izan dezakeen atzerapena.

Iregui andreak erantzun dio berak ez duela begiratzen zein enpresa den, baizik eta betebeharak ez betetzeko arrazoiei. Esan du ere kasu horretan berarentzat oso erabakigarria izan dela enpresak ez duela bete bere gain borondatez hartutako betebeharra, eta esleipena egiterakoan betebehar hori erabakigarria izan zela kontratua berari esleitzeko, betebehar horrek puntu batzuk eman zizkiola, eta horiek gabe ez zuela esleipena lortuko. Azkenik esan du gizarte zerbitzuetatik jarrera bera izango dela guztiekin.

Urrutia jaunak, bere txanda amaitzeo, Intxaurtxuetan geldirik dauden obren kasua aipatu du, eta guztiekin exijentzia bera izatea eskatu du.

Alkateak jakinarazi dio Zaldibar Antzokiaren 2. faseko obren enpresa esleipendunak bete duela Eskoriatzako langabetu bat kontratatzeko zuen betebeharra.

#### **9.- 2013KO ORDENANTZA FISCALEN GAINeko ALEGazioAK ERABAKITZEA ETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

2012ko urriaren 30ean Udalbatzarrak hasiera batean onartu zuen 2013. urteko urtarrilaren 1etatik aurrera indarrean izango diren zerga, tasa eta prezio publikoen ordenantza fiskalak aldatzea.

Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2012ko azaroaren 6an, eta jendaurrean egoteko epe barruan alegazioak edota iradokizunak aurkeztu dituzte ondorengo pertsona edo erakundeek:

Museo Ibarraunditik egindako iradokizunak:

1. Herriko ikastetxetako ikasle taldeak (16 urtetik beherakoak): doan
2. Herritik kanpoko ikastetxetako ikasle taldeak (16 urtetik beherakoak): % 50eko hobaria
3. Unibertsitateko ikasleentzat: % 50eko hobaria

Aurkeztutako iradokizunak aztertu ondoren, Hazienda batzorde informatzaileak proposamena egin du.

Egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, aurkeztutako iradokizunak onartzea.

**Bigarrena.-** Merino jaunak eta Urrutia jaunak aurka bozkututa, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, behin betiko onartzea, proposatutako aldaketekin, 2012ko urriaren 30ean Udalbatzarrak behin-behinekoz onartutako 2013rako ordenantza fiskalak.

#### **10.- 19. KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 19. expedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiarri egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Hazienda eta Ondareko batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bozkatu ostein, Urrutia jaunaren abstentzioarekin eta bertaratutako gainerako udal batzarkideen aldeko botoekin, aho batez, honako hau E R A B A K I D A:

**Lehenengoa.-** Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onartzea, Udal honen aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

**Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)**

# PART

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa bai Gastuetan bai Sarreretan.

## **11.- 2012KO ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIARI BURUZKO ERABAKIA.**

Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkariordetzatik posta elektronikoz bidalitako idatzi bat jaso dugu Udal honetan, eta bertan informazioa eskatzen da uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikuluan aurrekusitakoa benetan betetzen den egiazatzeko.

Bertaratutako guztiak idatziaren edukiaren berri izan dute.

Idatziari erantzuteko, aurrez eztabaidatuta eta Merino jaunak eta Cantero jaunak aurka bozkatuta, Gobernuaren Gipuzkoako ordezkariordeari ondorengoa jakinaraztea ERABAKI DU Udalbatzarrak:

**Lehenengoa.-** Udal honek bete du uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikuluan ezarritakoa, eta ez du abenduko aparteko ordainsaria deitutakoa ordaindu, eta ezta beste inolako konpentsazio edo ordezko ordainsarik ere.

**Bigarrena.-** Abenduko nominak urteko gainerako nominen kontzeptu eta zenbateko berberak ditu.

**Hirugarrena.-** Ez dago aipatutako aparteko ordainsari horretarako aurrekusitako aurrekontu-kredituei buruz inolako erabakirik hartu beharrik; izan ere, kreditu hori urte naturalarekin batera agortzen da (urtean betearazteko printzipioa). Nolanahi ere, gure foru antolamenduak aurrekontu arloan ez du aurreikusten eskarian aipatzen duzun ez-erabilgarritasunaren akordioa hartzeko mekanismorik.

Bozkatu aurretik izandako eztabaidan argi gelditu da udal talde guztiak uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko neurrien aurka daudela, eta bozeramaleen juntak, langileekin batera, neurri horien aukako idazki bat adostea erabaki da.

*Erabaki hori hartuta, eta AJAko 91. artikuluak emandako ahalmenak erabiliz, Alkatea jaunak Udalbatzarraren esku utzi du berak eta partzialki liberatutako beste zinegotziak egindako eskaerak izan dezakeen premia erabakitzea.*

*Eskaera premiazkotzat jotzeko arrazoia azaldu ondoren, Udalbatzarrak aho batez, eta legezko gehiengo absolutuaren quorumarekin, gaia aztertza ERABAKI DU.*

#### **12.- LIBERATUTAKO ZINEGOTZIEN ABENDUKO APARTEKO ORDAINSARIA.**

Udalbatzarrak hartutako erabakiz, Alkatea eta Igor Ezpeleta zinegotzia dedikazio partzialez ari dira beraien karguetan.

Kasu bietan urteko lansaria 14 ordainsaritan ordaintzen da.

Aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-Dekretuko 2. artikuluak ezartzen du Udal honetako langile guztiei abenduko aparteko ordainsaria eta hilabete horretako berariazko osagarriari dagokion ordainsari gehigarriak edota ordainsari gehigarri baliokideak kenduko zaizkiela.

Udalbatzarkide biek, udal langileei elkartasuna adierazteko, uko egin diote 14. ordainsariari, hau da, abenduko aparteko ordainsariari.

Ukoaren berri izanda, eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Merino jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Liberatutako bi udalbatzarkideei ez ordaintza 2012ko abenduko aparteko ordainsaria.

**Bigarrena.-** Aipatutako aparteko ordainsaria kentzeak eragindako ondorioak nolabait arintzeko plantillako langileei aplikatu behar zaizkien neurri berak aplikatzea Udalbatzarkide biei.

Merino jaunak adierazi du aurka bozkatuko duela, keinu hori “eguzkiari topa” egitea iruditzen zaiolako, eta bere ustez udalbatzarkide liberatuek ordainsaria jaso behar dute, langileek ere jaso beharko luketen moduan.

#### **12.- FRANCISCO JAVIERERRASTI URIARTE JAUNAK JARRITAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA.**

Alkateak Hazienda batzorde informatzaileak egindako diktamena irakurri du, eta hitz egiteko txandari hasiera eman dio ondoren.

Madinabeitia jaunak hartu du hitza. Gogoeta batzuk egin ditu Errasti jaunak bere errekurtsoa oinarritzen duen alegazioetan oinarrituz, ondoren laburtuta jasotzen direnak:

- “Bide bat erabilera publikoak izateak ez du esan nahi titularitate publikoak denik” esateak Gipuzkoako Errepide eta Bideei buruzko Foru Arauaren 3. artikuluan jasotakoa alde batera uztea dela esaten da alegazioan. Horri buruz, esan du ahaztu egiten duela Foru Arau horretako 1. artikuluak dioena: araua titularitate publikoko bideei aplikatzen zaiela, Aldundikoak izan edo udaletakoak. Eta beraz, erakundu horien titularitatekoei buruz ari bada, ez dela beste batzuen titularitatekoei buruz ari.

- Espedientean ez dela jasotzen inolako dokumenturik bidearen jabego pribatuaren gainean esandakoari buruz, honako hau esan du: uste dut bide horren zati bat pertsona baten jabegoko lurzati batzuetatik pasatzen dela; ez bide osoa, beste zatia jabetza baten mugatik doalako, eta ez dago frogarik zerbitzurik ematen dionik ezta eman dionik azken urteetan. Beraz, lur batzuetaik pasatzen baldin bada, eta lur horiek pertsona batenak baldin badira, uste dut jabetza pribatua argi dagoela.
- UGALDE & ASOCIADOSEN txostenari dagokionez, bai, egia da existitzen dela, baina, ez dago zertan onartu behar.
- Udalerrian badaudela antzinan udal titularitateko bideak izan zirenak esandakoari buruz, berak ez duela horrela ikusten esan du. Eta honakoa gaineratu du: gero esaten du herri lurrik saldu direla, eta? Eta herri lur horiek bide batzuk zituztela, bai, oso ondo. Eta inork ez du ukatzen momenturen batean zortasun-eskubidea izan zenik, baina, zortasun-eskubidea da, ez besterik. Lursailen batek ez bazuen sarbiderik, eduki behar zuen. Bainan, horrek ez du esan nahi publikoa denik ez antzeko ezer.
- Errekurtsogileak 1953ko ORDENANZA PARA LA CONSERVACIÓN Y REPARACIÓN DE CAMINOS VECINALES DE LA VILLA DE ESKORIATZAri egindako apelazioari dagokionez, honakoa esan du: bada, uste dut garai horietan ohitura zela, nire elizatean bai behintzat; udal ordezkariak sasibisita bat egiten zuen, auzotar guztiak parte hartu zutela egiazatzeko eta horiek eta udal ordezkaria auzolanean egindako lanarekin ados ote zeuden ikusteko. Bainan, horrek ez zuen inoiz ekarri bide hori publiko egiterik, auzolanean egiten ziren bide horietatik gehienak gaur egun desagertu egin direlako, eta horiekin mugakide ziren lursailen jabeek beraientzat hartu dituztelako bide horiek, eta ez da inon jaso bere garaian bide hori publikoa zela esatea eskatu zenik.
- Errekurtsogileak bere idazkian aipatzen duen bide sareari dagokionez, honako hau esan du: "... antzinan bide sare garrantzitsua zegoela", horrekin ados nago, baina "bide sare publikoa izatea", ez nago ados horrekin, ez dagoelako hori inon jasota. "Mandobidearen" kasua aipatu du, errekurtsogileak sare horretan sartzen duena, eta horri buruz esaten du ez dela bide publiko bat, orain dela urte askotik elkarte batek kudeatzen eta zaintzen duen bidea dela. Azkenik, esan du, horiek horrela, bide sare hori egon badagoen arren, ezin dela esan inolaz ere bide publikoen sarea denik.
- Errekurtsogileak esan du auzo bide bat bide publikoa dela, eta ez dago ados horrekin.

Ondoren, Alkateak hitza eman dio jende artean dagoen eta errekurtsoa jarri duen Javier Errasti jaunari berak jarritako errekurtsoa argitzeko nahi duena esan dezan.

(jasota gelditzen da, Javier Errastik esandako ez baldin bada jasotzen ere akta honetan, udalbatzarkidea ez delako, berak esandakoa espedientean jasotako CD batean grabatuta gelditzen dela).

Errasti jaunak hitz egin ondoren, udalbatzarkideek hitz egin dute, eta honako hau esan dute:

- Madinabeitia jaunak berretsi egin du berak ez duela inolako zantzurik ikusten bide hori erabilera publikokoak denik edo izan denik esateko; eta bide horrek ez duela inoiz izan erabilera publikorik, gaur egun kontzeptu hori ulertzen den moduan ulertuta.
- Alkate jaunak bozketa ezkutukoa izatea proposatu du. Cantero jaunak hori horrela egiteko arrazoiengatik galdetuta, erantzun du zenbait pertsonak ez zutela jarrera oso egokia izan gai bera aurreko bilkuran aztertu zenean, eta hori dela ezkutuan bozkatzeko arrazoia.
- Urrutia jaunak, bozketa ezkutukoa izateko arrazoirik ez duela ikusten adierazi ondoren, esan du berari ere ez zitzaion arren ondo iruditu pertson horien jarrera, diktamenaren aurka bozkatuko duela, bere ustez, Errasti jaunaren errekurtsoa onartu behar delako. Jarraian honako hau ere esan du: *ez dut ulertzen gobernu*

*taldearen burugogorkeria ikerketa espedientea ez irekitzeko. Ez dut ulertzen eta ezin dut ulertu, nire ustez irtenbidea bi jarreren arteko erdibidean dagoelako. Erabilera publikoko bide guztiak titularitate publikokoak direla? Ba, ez naiz ausartzen hori esatera, baina, ezta aurkakoa ere. Hemen frogak ekarri dituen bakarra Javier Errasti izan da, eta uste dut hemen inork ez dakiela ezer erabilera publikoari edo titularitate publikoari buruz. Ez dut ulertzen zein den arazoa espedientea ez hasteko eta kontu guzti horiek argitzeko. Uste dut norbaitek zerbait ez dakienean ikertu, aztertu, ikasi eta enteratu behar dela, eta ondoren, erabaki; erabaki hori Javier Errastiren gustuko izan edo ez. Nik, azken osoko bilkuratik gaia pixka bat landu dut eta espedientera iritsi naiz. Juan Ramon Ugalderen txostenetan ezagutu dut. Udal honetan - zure ama bertan zela, Beñat-alkate bat egon zen, esaten zuena txosten teknikoek esaten zutenaren aurkako erabakiak hartzen zituen alkateak prebarikatzen zuela. Nik ez dut hain arin hitz egingo, uste baitut alkate batek txosten teknikoek aurkako erabakiak hartzeko ahalmena duela, horrek dakarren ondorio guztiekin eta horien jakitun; bestela, hemen alkateak sobran daude eta guztiok sobran gaude. Baina, nik honetan guztionetan susmoak ditut. Hemen, txosten bat egin duen aholkulari juridiko bat daukagu (txostena irakurri du). Hori da Udalaren beraren aholkulariak dioena, ez da hirugarren baten aholkulariak esandakoa. Okerrena ez da txosten horren aurkako erabakirik hartzerek, okerrena da espediente hori ikusteko ardurarik hartu ez duenak ez duela jakin orain arte txosten horren berri. Txosten hori ez da agertzen inolako akta edo diktamenetan, ez da agertzen inon; eta horregatik, itxura txarra hartzen diot honi guztoni hasiera hasieratik. Zalantzak ditut zein izango ote den hemen benetan defendatzen ari den interesa. Nire zalantzak eta susmoak ditut. Eskaera goiko auzoetako beste Javier batek egin izan balu, edo, Javier Errastik bezala, beste alkateren batek, dagoeneko espediente hori hasita, tramatututa eta eskatzailearen alde erabakita egongo zen.*

Gaiaren diktamena egin zenean Hazienda batzordean esandako gauza batzuk aipatu ditu. Esate baterako, Madinabeitia jaunak esandakoa: auzo bidea eta bide publikoa ez direla gauza bera, eta esan du autopista obrak egin zirenean goiko auzoetako bide guztiak publikoak zirela edo interes publikokoak edo zerbait publikoa zutela. Jarraitu du: *badirudi hemen obispoek sarri egiten dutena egiten dela, kobrau behar denean nik kobrau eta ordaindu behar denean besteek ordaindu dezatela*. Esan du orain arte landa bideak konpontzearen alde egon bada ere, hemendik aurrera ez dakiela zer egingo duen bide horien izaera publikoa ez bada egiaztatzen. Alkateari zuzendu zaio eta aholkatu dio zein bide konpondu, sastrakak kendu edo garbitu erabaki behar denean, diktamenean erabilitako irizpideak kontuan hartzeko. Hazienda batzordeko kontuetara itzulita, esan du batzorde horretan esan zela bidearen zati bat -Antontxutik Bernabe jaunaren lursailera doan zatia- publikoa zela ulertzen zela, hainbat lurzatiri zerbitzua ematen dielako; eta bide hori publikoa dela ulertzen baldin bada, galdetzen du zergatik ez horrela ulertu Bernabe jaunaren jabetzakotik tejeriaraino doan zatia. Honakoa esan du: *zer dago zati horretan alde hori egoteko? Eta baieztapen horretan arduratzen nauena da erabilera publikoari buruz batzuek duten kontzeptua*. Hainbat lurzatiri zerbitzua ematen dielako erabilera publikokoak dela esan daiteke? Kontzeptu horrek arduratzen nau. Baina, oraindik bada gauza okerrago bat. Norbaiten interesen alde egitearren interes orokorraren alde ez egitea baino gauza okerrago bat badago: norberaren egin beharrak ez egitea. Batzordean honako hau esan zen: "ez dut ez gogorik ez denborarik gai horretarako". Ez dut ulertzen burugogorkeria hori, eta arduragabekeri galanta iruditzen zait gai hori auzitara eramateko zorian jartzea Udalak ez duelako bere lana egin. Eta kasu honetan, Udalak ez ditu egin bi egin behar: bata, bide publikoen inventario bat onartuta ez izatea, nahiz eta Tomas Madinabeitiak hain ondo landutako dokumentua izan; eta, bestea, sinestezina iruditzen zait ikerketa espedientea hasi gabe gai hau administrazioarekiko auzira eramateko arriskuan jartzea egin beharrak egin gabe izateagatik. Eta, gehiago ere esango dut, bitxia litzateke Juan Ramon Ugalde Udala defenditzen ikustea auzi horretan, bere txostenean jarritakoa ikusi ondoren, hau da, espedientea irekitzeko nahikoa zantzu daudela.

- Madinabeitia jaunak erantzun dio bera ez dela susmoen jokoan sartu behar, eta bakar bakarrik zehaztu gura duela berak inoiz ez zuela esan, edo ez zuela esan nahi, Antontxutik Bernabe jaunaren jabetzaraino doan zatiak erabilera publikoa izan zezakeenik. Berri esan du ez duela hasi nahi susmoen gaineko eztabaidan, eta are gutxiago, bere interesak zalantzan jartzen dituenarekin.
- Alkate jaunak adierazi dio gaizki interpretatu duela Madinabeitiak batzordean esan zuena, esan nahi izan zuela berak ez duela Errasti jaunak duen beste denbora gai hori aztertzeko eta horren baieztapenak puntuz puntu erantzuteko. Gehitu du inoiz ez dela arduragabekeriaz jokatu, eta Errasti jaunari beste edozein herritarri ematen zaion tratu bera eman zaiola.
- Urrutia jaunak erantzun du behartuta dagoela susmoez hitz egitera; berak esan duenez, hemen frogak aurkeztu dituen bakarra Javier Errasti izan delako, eta berak ez duela horren aurkako inolako frogarik ikusi (eskematikoki berriz esan du aurreko txandan esan duena).
- Madinabeitia jaunak esan dio ez duela frogarik idatziz ekarri, baina, horietako frogak bat Gipuzkoako Errepideen Foru Arauaren 1. artikuluaren edukian dagoela.
- Merino jaunak adierazi du ez duela ulertzten zergaitik ez den ikerketa bat irekitzen.

Eztabaidea amaitutzat jo ondoren, Alkateak ezkutuko-bozketara jarri du batzordearen diktamena, eta abstentzio batekin, aldeko 5 botorekin eta aurkako 3kin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.** EZ ONARTZEA, ondoren esango diren arrazoiengatik, Francisco Javier Errasti jaunak jarritako berrazterte errekursoa. Errekurso hori Udalbatzarrak 2012ko urriaren 30ean egindako bilkuraren hartutako erabakiaren aurka jarri zuen, eta erabaki horretan ez zen onartzen Bernabe Errasti jaunaren jabetzaren aurretik Mazmelarako errepideraino doan Tejeriarako bide zatiaren erabilera publikoa zehazteko ikerketa-espedientea ofizioz irekitzeko Javier Errastik egindako eskaera.

Errekursoa ez onartzeko arrazoiak:

- "ESKORIATZAKO BIDE PUBLIKOEN INVENTARIOA" dokumentua ez zuen Udal honek onartu, eta beraz, bertan jasotako zehaztapen bat bera ere ezin da frogatzat erabili. Dokumentu horrek ez du balio bertan jasotako bideen erabilera publikoa egiazatzeko, eta are gutxiago, horien titularitatea.
- Bide horretatik oinezkoak, gurdia eta mota guztiako ibilgailuak igaro direla eta igarotzen direla esatea ez da zuzena. Bide hori oinezkoentzako erabili da bakarrik, eta bere garaian, baliteke gurdientzat ere erabili izatea; baina, ez dago aztarnarik gurdirik edo beste ibilgailu mota batzuk aspaldian igaro direnik. Beste kontu bat da, gaur egun, motordun ibilgailu mota batzuekin "ia edozein lekutik" igaro ahal izatea, eta bide hori erabili izana momentu batean edo beste batean bertatik pasatzeko.
- Bide batetik oinezkoak lehen igaro izateak edo orain igaro izateak ez du esan nahi bide publikoa denik.
- Bide horrek ez die zerbitzurik ematen alboko jabetzei; jabetza horiei eta errekurtsogilearen jabetzari berari ere Antontxutik errekurtsogilearen txabolara doan bideak ematen die zerbitzua.
- Esandako horri gehitu behar zaio erabaki honetako "bidearen" zati bat menditik datozen urak bideratzeko ere erabili izan dela. Hala ere, egia da hori horrela izanik ere, ez dela oztopo izan oinezkoek bide hori erabiltzen jarraitzen.

- Bideen antzinako izenak aipatzeak, hau da, Elixabide edo Hiletabide, ez du justifikatzen erabilera edo titularitate publikoko biderik egon denik. Helburu zehatz bat lotutako bideak ziren, eta ezin ziren erabili beste helburu batzuetarako, eta edozein ere ezin zitekeen bertatik igaro bere gundi edo ibilgailuarekin. Gaur egun ez dago bide horiek erabiltzeko lehen zegoen beharrik, eta beraz, ezin dira izendapen eta erabilera horiek aitatu paso eskubidea norberarentzat hartzeko.
- Bide horrek erabilera publikorik ez duela izan eta ez duela ziurtatzeko adierazgarri da Udalak inoiz ez duela izan bide hori mantentzeko ardurarik.

**Bigarrena.-** Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, adieraziz honen aurka administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri dezakeela Donostiaroko dagokion maila bereko Auzitegian, eta horretarako bi hilabeteko epea duela jakinarazpen hau jasotzen duen bihamamunetik kontatzen hasita. Hori guztiori, egin gura dituen bestelako egintza edo errekursoak aurkeztearen kaltetan gabe.

Pleno aretora etorritako jendearengatik, gehienak **KALERATZEAK STOP DEBAGOIENAKO PLATAFORMAKO** kideak, eta Merino zinegotzi jaunak eskatuta, aztertu beharreko gaien ordena aldatu du Alkateak. Horrela, aipatutako plataformaren eskariz aurkeztutako mozioa eztabaidara ekarri eta bototara jarri da.

**Plataformaren mozioa dela-eta, Cantero jaunak gai zerrendatik kendu du bere udal taldeak etxegabetzei buruz aurkeztutako mozioa.**

#### **13.- KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS DEBAGOIENA PLATAFORMAK ESKATUTA AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Hitza eman ondoren, plataformaren bi ordezkarik mozioa irakurri dute, hemen hitzez hitz transkribatzen dena:

#### **KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS DEBAGOIENA PLATAFORMAREN MOZIOA.**

2008tik, krisiak eztanda egin zuenetik eta langabezia goraka hasi, laurrehun mila familia baino gehiago kaleratu eta bota dituzte euren etxeetatik. Horrek esan nahi du Euskadin banketxeek egunero 5 familiei kentzen dietela etxea.

Hori gertatzen denean, familiek ez diote bakarrik etxea galtzeari aurre egin behar, bizi guztirako finantza kondenari ere aurre egin behar diote: banketxeak demanda jartzen du eta hipoteka exekutatzeko prozesua hasten da, higiezinaren enkantearekin amaituko dena. Enkantean ez badu inork hartzen (gaur egungo krisi egoeran % 90ean baino gehiagotan gertatzen dena), indarrean dagoen legediaren arabera banketxeak eskuratzentzu du etxea tasazio balorearen % 60an, eta hala ere, zorra gehi interesak eta epaiketa-kostuak ordaintzeko erreklamatzen jarraitzen die kaudimenik ez duten pertsonei. Horretarako, nominak, banketxeko kontuak eta abar bahitzen dizkie eta abal emaileei ere bahitu diezazkieke. Hau da, etxebizitzak galtzeaz gain, milaka familiek bizi guztirako finantza kondenari aurre egin behar diote, eta horrek bazterketa sozialera eta ezkutuko ekonomiara kondenatzen ditu.

Legedi hau, etxebizitzak tasazio balioaren % 60an banketxeen esleitzea lagatzen duena, ez da normala eta ez du parekorik gure inguruko herrialdetako legedietan, eta gainera, familiek ez zuten horren berri hipoteka kontratuak sinatu zituztenean. Kaltetuak ez ezik, epaileak, gizarte erakundeak eta Europar Batasuna bera ere legedi horren aurka agertu

dira, bakarrik finantza erakundeek eta PPren gobernuak jarraitzen dute hartzekodun bankuen eskubideak pertsonen eskubideen gainetik jartzen duen 100 urtetik gorako hipoteka legedi hori defendatzen. Onartezina eta erabat bidegabetzat jotzen dugu zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batean krisiaren eragin guztiak hipoteka kontratuaren alderdi ahulenak jasan behar izatea; eta, aitzitik, basketxeek, gaur egungo krisiaren errudunak neurri handi batean, likidezia arazoak dituztenean zergatistik ateratako milioi askoko diru laguntzak jasotzea inolako erantzukizunik euren gain hartu behar izan gabe.

Egoera horrek gizartearen eta familia barruan dramak sortzen ditu eta bada bere buruaz beste egin duenik ere -esaterako, orain dela gutxi Amaia Egañak Barakaldon-, eta horrek areagotu egin du bidegabekeria izugarri horren aurkako salaketa soziala. PPren gobernuia saiatu da protestak isiltzen moratoria pantomima batekin, izan ere kasu gehienak ez dira moratoria horretan sartzen, eta gizartearen eskariei erantzuteko baino basketxeen presioei erantzuteko egina da.

Hemen esandako guztia estatuaren eskumeneko araudiaren menpe dago, baina, horren ondorio dramatikoak udal mailan ikusten dira, kaltetutako pertsona eta familiek udaletara jotzen baitute nagusiki lagunza eske. Gainera, udalek ordezkariak dituzte berriki pribatizatutako hiru euskal kutxetako akziodunen batzarretan. Ordezkari horiek udalek gai horri buruz duten iritziaren berri eman beharko lukete batzarretan.

**Horregatik guztiagatik, “Kaleratzeak Stop Desahucios Debagoiena” plataformak ondorengo erabakiak hartzeko eskatzen dio Eskoriatzako udalbatzarrari:**

1. Espainiako Gobernuari eta Gorteei hipoteken arauen aldaketa presaz onartzeko eskatzea, eta aldaketa horretan orain arte egindako hipotekei atzeraeraginarekin aplikatzea etxea ordainean ematearen figura –higiezinen burbuilaren garaia kontuan izanik–; horrela, ohiko etxebizitzaren kasuetan, basketxeak hipoteka exekutatzen baldin badu eta etxebizitza bereganatu, zor osoa (zor nagusia gehi interesak eta epaiketa-kostuak) kitatuta gelditu dadila, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala.
2. Egungo hipoteka legea aldatu arte benetako moratoria onartzeko eskatzea Estatuko Gobernuari. Moratoria horrek, hipoteka sinatu ondoren eta beraien borondatearen kontra kaudimen gabezia egoerara iritsi diren pertsona eta familiak beraien ohiko etxebizitzetatik kaleratzeko prozesuak gelditzeko balio beharko luke. Eta orain arte egindako milaka kaleratzeen ondorioei erantzuteko, berriz, premiazko neurriak har ditzala kaleratzeen ondorioz basketxeak eskuratzentz ari diren milaka etxebizitza huts kaleratuak izan eta errekurtsorik ez dituzten familien esku jartzeko alokairu sozialeko erregimenean.
3. Kutxetako batzarretako udal ordezkariei agintea basketxeei eskatu diezaietela ohiko etxebizitzetatik kaleratzeak ekiditeko helburua izango duen plan bat martxan jartzeko, kaltetutako familiekin alternatibak negoziatuz, hala nola, moratoriak edo ordeko alokairuak.
4. Hipoteka legearen aldaketa onartu arte pertsonak eta familiak kaleratzeko prozedurak gelditzeko eskatzea basketxeei; eta Udal Gobenuari, berriz, moratoria eskaera hori onartu gabe hipoteka exekuzioak egiten jarraitzen duten basketzetatik Udalaren diruak ateratzeko beharrezko neurriak hartzeko.

5. Etxetik kaleratutako pertsona eta familiei informazioa emateko eta laguntzeko konpromisoa hartzeko; eta etxea kentzeko mehatxupean daudenei, berriz, kaleratzea gelditzeko behar besteko aholkularitza emateko eskatzea Udal Gobernuari. Horretarako telefono bat eta posta elektroniko helbide bat jartzea kaltetutako pertsonei kasu egiteko.
6. Udal honek konpromisoa hartzen du elkarlanean aritzeko kaleratzeak salatzen eta kaleratzeen aurka borrokatzenten erakunde sozialekin. Horretarako, lantaldeak sortuko dira -edo horrelakorik ezean, lan ponentzia bat- larritasun handiko kaleratze prozesuan dauden pertsona eta familiei laguntzeko programa bat sortzeko aukera aztertzeko. Talde horiekin diagnostiko komuna egiteko konpromisoa hartzen da, horrela, dagokion eremuetan urratsak eman ahal izateko.
7. Udalak egun erabiltzen ez dituen egoitza erabilerarako edo gizarte larrialdirako baliabideak aktibatzea herrian kaleratu dituzten familiei laguntzeko, betiere, ohiko etxebizitzetatik kaleratuak izan badira.
8. Erabaki horien berri ematea STOP Desahucios plataformari, herrian sukurtsalak dituzten banketxeen, Estatuko Gobernuari, Kongresuko eta Senatuko talde parlamentarioei, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari.

Plataformako ordezkariek, onartzeko zaila izango dela iruditzen zaielako, 4. puntuadatzeko eskatu behar dutela adierazi duten arren, Alkateak testua dagoenetan mantentzea proposatzen du.

Jarraian ondorengoko hartu dute hitza:

Alkate jauna: kezka sortzen duen gaia da, eta gai horri buruzko kezka latentea da, Jose Luisek ere aurkeztu zuelako beste mozioa bat, gero kendu duena, eta nik ere beste bat nuen prest, baina, ez dut aurkeztu, uzte baitut batekin nahikoa dela, guztiak zentzu berean baitoaz, eta gainera, egokiago iruditzen zitzaidalako plataformak aurkeztea. Nik uste dut hau guztia drama bat dela, eta lehenengo bi puntuetaan dei egiten zaio Espaniko Gobernuari, berak baitu eskumenak gai horretan, beharrezko aldaketak egin ditzan antolaketa juridikoan, kasu bat bera ere gehiago egon ez dadin. Drama honekin jendea hiltzen ari baita. Konponbide hain zaila ez duen arazoa da; askotan, mahai baten bueltan eseritzearekin nahikoa izaten da. Nik, horrelako kasuetaarako jarduera protokolo bat nuen esku artean, gutxi gorabehera 5. puntutik 7. puntura jasotzen dena, udalari eskatzen zaizkion gauzak jasotzen diren horietan. Ez dut ezer gehiago esaterik. Bakarrik, "baina" bat dut, gertaera horiek salatu behar direla esaten den horretan, jendeak horrela eskatutakoan anomiotasuna errespetatzea eskatzen dut. Gertakariak salatzea eskatzen dut, baina, bere egoera publiko egin nahi ez duenaren intimitatea errespetatuz. Telefono bat eta helbide elektroniko bat jarriko dugu Udalaren eta kaltetuen arteko harremana errazteko, eta plataformaren lagunza ere eskatzen dut, zuek gaia oso landuta izango duzuelako. Ez dut beharrezko ikusten batzorde bat sortzea, sortuko duguna lantalde bat izango da. 4. puntuari dagokionez, egia da ezin ditugula harremanak hautsi finantzera erakunde horiekin, epe oso luzera zenbait eragiketa kontratatuta ditugulako, baina, uste dut eragin dezakegula beste mota bateko eragiketekin. Areago, zerbait gehiago esango dut: ohiko banketxeen jardunbidea ikusita, banku etikoari buruzko informazioa jasotzen ibili gara, eta uste dut garaia dela udalak ere horretan sartzeko. Langileren bat beldurra ematen badio ere, irtenbidea informatzea da eta aukera hori aztertzea. Aurkeztutako mozioarekin ados nago.

Merino jauna: plataforma horretako kide bezala hitz egiten dut eta jakinarazi nahi dut plataformak Debagoieneko udalei lankidetza hitzarmen bat aurkeztea aurreikusita duela.

Eztabaida amaituta, bozketa egin da, eta 2 abstentzioekin (Madinabeitia jauna eta Arkarazo andrea) eta aldeko 7 botorekin, mozioa onartu da.

#### **13.- CESPA S.A.-REKIN SINATUTAKO KONTRATUARI BURUZKO ERABAKIA.**

Udalbatzarrak ondorengo erabakia hartu zuen 2012ko irailaren 30ean:

"2012ko abuztuaren 14an hasita urte betez luzatzea CESPArekin sinatutako kontratua kaleak garbitzeko zerbitzua emateko".

Luzapena oraindik amaitu ez bada ere, Hirigintza batzorde informatzaileak jakinarazi du enpresa kontratistarekin luzapenaren prezio berri bat adostu dela 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera; eta horrela, hileko fakturazioa 2012ko urte osoko fakturazioaren hamabirena izango da. Enpresa kontratistak berariaz adierazi du ados dagoela adostutako prezioarekin: 9.964,71 €/hileko.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak eta Cantero jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiak alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

1.- Kontratuaren luzapeneko baldintzak aldatzea 2013ko urtarrilaren 1ean hasita, eta egun horretatik aurrera 9.964,71 €/hileko izatea kontratuaren prezioa.

Merino jaunak esan du aurka bozkatzen duela, hiru enpresei ematen zaien tratua (CESPA, LANDU ETA HEMEN GARBIKETAK) ez delako bera, ez duela ulertzen zergatik batzuei prezioa jaisten zaien eta beste batzuei bere horretan mantendu.

#### **14.- HEMEN GARBIKETAK SL.-REKIN SINATUTAKO KONTRATUARI BURUZKO ERABAKIA.**

2012ko abenduaren 31n amaitzen da HEMEN GARBIKETAK SL enpresarekin eraikinak garbitzeko sinatutako kontratuaren indarraldia.

Aipatutako kontrata arautzen duen baldintza-agiriko bosgarren baldintzaren arabera, kontrata urte betez luzatu daiteke bi aldiz; eta guztira, luzapenak barne, ezingo du 4 urtetik gora iraun.

Hirigintza batzorde informatzaileak, prezioa berraztertzeko inolako formularik ezarri gabe, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera kontrata urte betez luzatzeko proposamena egin du.

2012ko abenduaren 5ean bidalitako idatzian, enpresa kontratista ados agertu da luzapena baldintza horietan egiteko.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak eta Cantero jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiak alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

HEMEN GARBIKETAK SL. enpresarekin eraikinak garbitzeko sinatutako kontrata urte betez luzatzea 2013ko urtarrilaren 1ean hasita. Luzapena honako baldintza honekin egiten da:

1.- Ez da prezioa berraztertzeko formularik ezarriko.

#### **15.- LANDU SL.-REKIN SINATUTAKO KONTRATUARI BURUZKO ERABAKIA.**

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guziek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lorategiak zaintzeko LANDU enpresarekin sinatutako kontratua aldatzea eman beharreko zerbitzuari dagokienez. Horrela, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera 2012ko prezio bera mantenduko da eta zerbitzu berri bezala Elorreta area berria gehituko da.

#### **16.- ARETXABALETAKO UDALAREKIN SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENA, UR HORNIDURA ZERBITZUARI BURUZKOA.**

Hirigintzako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengo.- Aretxabaletako Udalarekin URAREN AZPIEGITURA AMANKOMUNAK MANTENTZEKO lankidetza hitzarmena sinatzea.

Hitzarmenak ondorengo baldintzak ditu:

**LEHENA.-** Bi azpiegituren instalazioak, kokatuak diren udalerriko Udalaren jabetzapean geratuko dira. Ondorioz, instalazioak mantentzeko beharrezko liratekeen tramitazio guztiak, hala nola proiektuen onarpena, mota ezberdinako baimenak, kontratacio prozedurak, lursailen egokitasuna, etab., haien jabe den Udalak egingo ditu, hitzarmen honek arautzen duen finantzazio-banaketa edozein izanda ere.

**BIGARRENA.-** Hitzarmen honen ondorioetarako beharrezko jotzen da ondorengo kontzeptuak zehaztea:

- Ohiko mantenua: Instalazio elektrikoa eta bere kostua, bálbula sistema, pieza bereziak eta osagaiak eta obra zibila bere osotasunean.
- Ez ohiko mantenua: Obra naiz instalazioetan egin beharreko aldaketak edo hobekuntzak, haiiek zaharkituak daudela uste delako edo bi Udalek hala erabaki dutelako.

**HIRUGARRENA.-** Era berean eta instalazioen mantentze ondorietarako soilik, egoki irizten zaio, amankomunak diren azpiegiturak eta Udal bakoitzarenak direnak bereizteari (Plano eransten da):

a) Azpiegitura amankomuna:

- Eskoriatzan ponpaketa estazioa, bultzaketa, Bolibarren dagoen depositu erregulatzailea eta Meniolako Arretxena eta Olabena baserrietaraino ura eramatea.

- Aretxabaletan Lausittako ponpaketa estazioa, bultzaketa, Galartzako depositua eta Etxebarri-Gari Bai Baserri gainetik doan auzo bidean dagoen, Gellaora doan sarearen zenbaketa eta deribazio kurtetaraino ura eramatea.

b) Azpiegitura berezia: Aurreko puntuau esan gabe geratu den bi instalazioen banaketa.

**LAUGARRENA.-** Azpiegitura amankomuneko instalazioen ohiko mantentze kostuak, haien jabe den Udalaren kontura izango dira.

**BOSGARRENA.-** Azpiegitura amankomuneko instalazioen mantentze kostu bereziak, beti ere ohiko mantentzean izandako utzikeriagatik ez diren bitartean eta bi udalerrien aurrez hartutako erabakiaren ondoren, azpiegitura bakoitzak hornitzen duen udalerri bakoitzeko baserri portzentzia kontuan izanik finantzatuko dira:

1.- Galartzako instalazioa: Aretxabaleta (30 baserri) % 62,50 eta Eskoriatza (18 baserri), % 37,50.

Eskoriatzako baserrien zerrenda: Arangoiti-Garaikua, Etxabe-Azpikoa, Santakua (A), Santakua (B), Etxebarri alde Behekoa, Etxebarri alde Goikoa, Gellao Elizatea 21, Etxabe, Gaztaineta txabola, Gellao Elizatea 19 Esk Solueta, Gellao Elizatea 19 Esk Solueta, Mendizabal, Gellao Elizatea 21-Intxaundi, Arangoiti-erdikoa, Landatxo-Etxea, Unbe-Etxea, Balautxa, Iturbe.

2.- Bolibarko instalazioa: Edateko uraren ponpaketa eta banaketa deposituari indarra ematea.

2.1.- Ponpaketa instalazioa: Eskoriatza (73 baserri) % 83,91; Aretxabaleta (14 baserri), % 16,09.

Aretxabaletako baserrien zerrenda: Jeronimuena, Begixan, Abade-Etxea, Palaziokua, Madura B Eskuma, Madura B Ezkerra, Juanatxoko, Aurreko, Terezena, Erderena, Bikarixuena, Mendibitzu, Boliñako Errrotie, Patxikuena .

2.2.- Bultzaketa, depositua eta banaketa: Eskoriatza (57 baserri) % 80,28; Aretxabaleta (14 baserri), % 19,72.

Dena den, baserri berriak edo etxebizitzak egingo balira, artikulu honetan ezarritako proportzio hori aldatu egin beharko da, bi udalerrien aurretiazko erabakiaren ondoren.

**SEIGARRENA.-** Azpiegitura bereziari dagozkion mantentze kostuak, bai ohikoak baita bereziak ere Udal bakoitzak finantzatuko ditu.

**ZAPIGARRENA.-** Uraren kostua sei hilabetean behin kobraztuko dio Udal bakoitzak besteari, Ur Patzuergoak fakturatutako zenbateko berdinean, Horretarako hiru kontadore ezberdi jarri dira, eranskin dagoen planoan agertzen direnak, ondorengo kokaguneetan:

a). Eskoriatzako azpiegitura:

- Bata, Arretxena (Mendiola) baseria pasa ondoren, eta Arkarazo Goikoa auzoan dauden baserriek kontsumituko duten ura zenbatuko du.
- Bestea Olabena (Mendiola) baseria pasa ondoren, eta Arkarazo Behekoa eta Boliña auzoetan dauden baserriek kontsumitutako ura zenbatuko du.

b).- Aretxabaletako azpiegitura:

- Bata, Arangoiti (Gellao) baserritik Etxezuri (Galartz) baserrira daraman errepidera doan auzo-bidean eta Gellao baserri guztiak kontsumitzen duten ura zenbatuko du.

**ZORTZIGARRENA.-** Esandako kontadoreen irakurketa hiru hilabetero egingo da, eta jasotako datuak bi udalek elkarri emango dizkiote.

**BEDERATZIGARRENA.-** Bi udalek, egoki iritzitako organoen bidez, gutxienez urtean behin biltzeko konpromisoa hartzen dute hitzarmen honi jarraipena emateko. Bilera horien aktak jasoko dira eta hitzarmenari erantsiko zaizkio.

**Bigarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkaritzan sinatu dezan.

## **17.- SAN PEDROKO 8. ZENBAKIKO ETXEJABEEK EGINDAKO HOBARI ESKAERA.**

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** San Pedroko 8. zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZaren % 90eko hobaria egitea, obrek betetzen baitituzte hobaria jasotzeko beharrezko baldintza hauek:

- a. Igogailua eraikinaren barnean jarri da.
- b. Ez du eraginik gune publikoetan.
- c. Igogailuaren jaitsiera lekua eraikineko elementu komunetan dago eta ez etxebizitzen leku partikularretan.

**18.- BASAURIA MAZPELA ELIZATEKO BIZILAGUNEN ELKARTEAK MAZMELA ELIZATEKO  
2. ZENBAKIKO ETXABEAN EGIN NAHI DUTEN JARDUERA INTERES SOZIALEKOA DELA  
AITORTZEA: irabazi asmorik gabeko kultur elkartea eta gastronomia elkartea.**

Hirigintzako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorri, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Arau Subsidiarioetako I tituluko 2. kapituluko 1.5 artikuluan (D.10 zonetarako erabilera erregimena) aurreikusitako ondorioetarako, BASAURIA Mazpela Elizateko Bizilagunen Elkarteak Mazmela Elizateko 2. zenbakiko etxabeko lokalean egin gura duen "irabazi asmorik gabeko kultur elkartea eta gastronomia elkartea" jarduerari onura publikoa eta interes soziala aitortzea.

**20.- ERAKUNDE ADIERAZPENA, AFAGI-K ESKATUTA.**

Ondoren transkribatzen da AFAGIk eskatuta Udalbatzarrak onar dezan aurkeztutako erakunde adierazpena:

Jakin badakigu Alzheimerra dementzien artean nagusia dela, gaur egun, dementzia mota honen eragina 3,5 milioi pertsonek pairatzen dutela estatu mailan, gaixoak eta hauek zaindu behar dituzten senideak kontuan hartuta.

Jakin badakigu Alzheimerra osasun eta gizate mailan ematen den arazoa dela, familia delarik zama handiena bere gain hartzen duena.

Jakin badakigu oraindik ez dagoela ez tratamendu eraginkorrik ezta prebentzio sistema egokirik ere gaixotasun larri honen ondorioak mugatzeko.

Jakin badakigu hurrengo hogeい urtetan gaixotasuna gailenduko dela gaixo kopurua bikoitzuz, batez ere, biztanleriaren bizitza itxaropenaren luzapena dela eta.

Jakin badakigu familia batean Alzheimerak sortu ditzakeen zuzeneko zein zeharkako gastuak 30.000 eurotik gorakoak izan daitezkeela.

Jakin badakigu gaixo eta senideen beharrei aurre egiteko eskura dauden osasun eta gizarte baliabideak eskasak direla.

Jakin badakigu, Europako Legebiltzarrak, Europako Komisioak eta duela gutxi Munduko Osasun Erakundeak gomendio ezberdinak luzatu dituzten arren, ez daukagula gaixotasun honen kalteei aurre egiteko plan zehatzik.

Biztanleria zahartzen ari dela eta honek dementziaren bat (Alzheimer motakoa batez ere) jasateko dakarren arriskuaren jakitun izanik..

ESKORIATZAko Udalak, arazo larri honekiko duen kezka adierazi nahi du "Alzheimerrarekiko Hiri Solidarioa" izatea erabakiz.

Honela, ekimen instituzional honekin, ESKORIATZAko Udalak beste udalerri batzuentzat adibide izan nahi du eta bide batez, osasun eta gizarte arloetako arazo larri honen inguruko sentsibilizazioa eta gizartearen zein instituzio eta politikarien kontzientziazioa bultzatu.

"Alzheimerrarekiko Hiri Solidario" bilakatuz, ESKORIATZAko Udalak Alzheimerrari buruzko Aliantzak bultzatu duen egitasmoaren alde egiten du. Egitasmo honek Alzheimerraren inguruko estatu-mailako politika abian jartzea aldarrikatzen du.

Madinabeitia jaunaren eta Arkarazo andrearen abstentzioarekin, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak adierazpena onartu du.

## **22.- ESKORIATZAKO EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Mozioa eztabaidatu aurretik, Alkateak gaia azterzeke lagatzeko proposatu dio EAJ-PNVko bozeramaleari. Proposamen hori justifikatzeko esan du mozioa banderek lotuta dagoela, eta Espainiako bandera jartza dela-eta udalari irekitako prozesu judiziala oraindik ez dela amaitu, ez baitakigu epaileek onartuko duten edo ez banderak orain jarrita dauden moduan jarraitza. Esan du oraindik ez dakigula banderek horrela jarraituko duten edo ez, eta horregatik, prozesua amaitu arte mozioa azterzeke lagatza eskatzen du.

Urrutia jaunak galdeu dio zer lotura duen horrek plaka bat jartzearkin. Esan du garbi dagoena dela modu batera edo bestera Espainiako bandera jarri behar dela; eta derrigorrez jarri behar bada, inposatuta, horregatik proposatzen dela plaka jartza.

Alkateak berriz eskatu du epaia betetzeko moduari buruz epailearen erabakia jakin arte itxaroteko.

Urrutia jaunak adierazi du oraindik ere ez duela arrazoirik ikusten mozioa atzeratzeko.

Cantero jaunak uste du, Urrutia jaunaren antzera, bi gauza ezberdin direla, eta esan du itxaron daitekeela, baina, urtarilera arte baino gehiago itxaron beharko dela ziur asko. Esan du Aitor Urrutiaren eskaerari buruz egon dela epai bat, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasua aipatu du, Aldundiak plaka jarri zuela eta Auzitegi Gorenak iritzi ziola epaia iruzurru eginda betetza zela eta plaka kentza agindu zuela. Azkenik, Alkate jaunaren proposamenaren alde agertu da, hau da, Udalak epaia betetzeko moduari buruz auzitegiak zer esaten duen jakin arte itxarotea.

Mozioa azterzeke lagatzeko Alkateak egindako proposamenari buruzko eztabaida amaituta, Urrutia jauna horren aurka agertu da eta mozioari eutsiko diola adierazi du.

Horren aurrean, aurkeztutako mozioa eztabaidara eta bozketara ekarri du Alkateak.

Urrutia jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

*Gaur, Eskoriatzako udaletik, Eskoriatzako herriaren erakunde gorenak, gure herriarekiko daukagun konpromiso etenezina berresten dugu.*

*Gizartearen borondate askearekiko gure konpromisoa. Konpromiso hori betez, esaten dugu ezin zaiola uko egin euskal herriaren izatea aitortzeari eta euskal herria borondate kolektiboa duen subjektua dela kultura, ekonomia eta politika aldetik.*

*Uste osoz, berresten dugu, Euskal herritarren erabakitzeko ahalmenaren aitortza, ezinbesteko eskubide demokratikoa dela. Euskal gizarteak, bere aniztasunetik, behin eta berriro adierazi du, era-bakitzeko eskubidearen aldeko iritzia.*

*Aniztasuna mantentzeko demokraziak eskaintzen duen bermea, nahi kolektiboa gauzatzeko aukera dago; subiranotasun horietatik ez datozen nahi kolektiboen instituzionaltza baztertzen duten, nazioen subiranotasunen betorik gabe gauzatzean.*

*Bere burua horrela definitzen duen edozein demokraziaren funtsetako bat da aniztasunarekiko izan behar duen errespetua. Baina aniztasuna ez da bitarteko erretoriko bat soilik, norbanako zein taldeko eskubide oro errespetatuko dituen bizikidetzaren oinarria baizik.*

*Argazkiak uniformatu nahi izateak totalitarismora eramatzen du, inoiz ez bizikidetzara.*

*Beraz, demokraziaren uste sendo hauetatik oso urrun dago gure erakunde guztiaren bandera espainiarra ezartzea, eta gainera, "ordezkatzen dituen konstituzioaren balio, printzipio, eskubide eta*

*beharren” eta “Estatu espanyolaren, batasun, independentzia, subiranotasun eta zintzotasunaren” adierazpen gisa egitea.*

*Horregatik, agindu judizialari zor zaion errespetua eta epaia nahi eta nahiez bete beharraren aur-ean, baina gure ardurari aurre eginez, ondorengo hau onar dadin proposatzen dugu:*

**MOZIOA:**

*1.- Eskoriatzako udalbatzak, inposizio hau desagertu artean, hiritar guztiek ikusi ahal izango duten Udaletxeko gunearren batean plaka bat jartzea onartzen du ondorengo testuarekin:*

*“Espainiako Auzitegi Gorenak, Espainiako bandera jartzera behartu du Eskoriatzako udala, herritarren borondatearen aurka. Epaia betetzean, Eskoriatzako udalak ondorengo adierazpena helerazi nahi die herritarrei:*

*Herri bat herri da, iragan eta etorkizun, osatzen duten pertsona gehienek hala sentitzen dutenean. Ikur bat ikur da: logo, oihal zati, margo. Gertatu ohi da ikurra herri baten ametsaren sinbolo izatea. Orduan baliagarri da, gutasunaren sentipen txikien piztaile delako, ez gehiago.*

*Gerta liteke ikurra herriaren ametsaren sinbolo ez izatea. Indarrean legez eta legearen indarrez ezarria izatea. Orduan ere baliagarri izan liteke, inposaketaren sinbolo bihurtzen baita, bizilegezko gabeziengogoratzalea.*

*Bandera espanyiarra zigor mehatxupean ezarritako sinboloa da gure erakundean. Eskoriatzar gehienon nahiaren aurka eta beren ordezkarien erabakimenaren kontra jarria dago. Herritarren borondatearekiko errespetu falta da, askatasunez erabakitzeko eskubidearen ukapena. Horra bada bandera, egoeraren ikur, jarri duenak berak jarri nahi ez duen oihal. Haizeak ironiaz darabil”.*

Amaitzeko, Urrutia jaunak esan du bere garaian Aldundian izan zen kasu bera dela, eta Udala behartuta dagoenez Espainiako bandera jartzera, argi gera dadila gure borondatearen aurka dela.

Ondoren honako hauek hitz egin dute:

Alkate jaunak esan du ados dagoela mamiarekin, baina, mozioa bere horretan lagako lukeela epaia betetzeko moduari buruz auzitegiak zer esaten duen ikusi arte.

Merino jaunak adierazi du mozioaren azalpen zatia onargarria iruditzen zaiola, zehazki, erabaki eskubideari buruz ari den zatia, eta kontu horrekin erabat ados dagoela esan du. Xedapen zatiari dagokionez, esan du banderak jartzeko inposizioa gaitzestera mugatuko litzatekeela bera; plaka jartzea, 26 bandera jartzearen gastuari beste gastu bat gehitzea izateaz gain gatazkarako bide izan daitekeelako gobernuaren ordezkaria errekursoak edo salaketak jartzen hasten baldin bada. Amaitzeko honako hau esan du: *amaitzeko, nik esango nuke gobernuaren ordezkariaren jarrera guztiz onartezina dela, gatazkari ez dagoen lekuaren gatazka bilatzea edo sortzea gura baitu herritarren arreta desbideratzeko gainean ditugun arazoetatik eta berak ordezkatzen duen Gobernuaren erasoetatik. Hori horrela, gobernuaren ordezkaria ezin denez “persona non grata” izendatu, horren aurkako epaia dagoelako, IU-Ezker Anitzak Gobernuaren ordezkariaren jarrera gaitzesteko adierazpen bateratua egitea proposatzen dugu, eta berari jakinaraztea ez dela ongi etorria izango gure herrira, Eskoriatzara, eta, beraz, ez dadila bisitan etorri. Horrelako adierazpenek indarra dute herri osoa edo gehiengoa benetan ordezkatzen baldin badute, eta horretarako, hobe litzateke aurrez adostutakoak eta ahalik eta zinegotzi gehienek sinatutakoak balira, eta ez, EAJk egin duen bezala, berak bakarrik aurkeztu, aurrez beste taldeekin hitz egin gabe.*

Cantero jauna: argi eta garbi, mozio honen aurka bozkatuko dugu. Hau, gai bat berriz irekitzeko beste modu bat da, Ibarretxe Plana 3 edo Ibarretxe Plana 4 da. Aurka bozkatuko dugu uste dugulako horrelako gai bat momentu honetan planteatzea, gaur egun daukagun krisi egoeran, ditugun arazo sozialekin, hitz egin berri dugunetaz, ba... Harrigarria da EAJ-k, etxegabetzeen mozioan alde bozkatzea, baina, ezer ez esatea. Badirudi gaia ez zaiola interesatzen eta mozio handi hau, plakaren mozioa, noiz aztertuko zain zegoela. Procedura judicial bat egon da, eta Eskoriatzako Udala

Espaniako bandera jartzera derrigortu dute, beraz, hor dago. Alkateak esan duen bezala, momentu honetan zain gaude agindu hori betetzeko modua zuzena izan den edo ez jakiteko. Gobernuaren ordezkariaren begiradapean gaude, modu horretara epaia bete den edo ez jakiteko, eta orain, plaka bat jarri behar dugu, eta plaka jarri behar dugu ados ez gaudela esateko. Baino, kontua da gai hori zaharra dela. Orain dela urte batzuk, Markel Olanok, zorionez Diputatu Nagusi oihak, plaka bat jarri zuen gai berarengatik, eta Espaniako Auzitegi Gorenak esan zuen epai judiziala betetzeko modu onartezina zela, iruzurra eginda betetzen zela, eta plaka hori kendu behar zela. Eta gero, demokraziaren kontu horiengatik, plaka kendu behar izan zenean Diputatu Nagusi Martin Garitano zegoen, errealsismoz jokatu zuena; ziklo politiko berri batean geundela esan zuen, eta banderei buruzko eztabaidea anakronismo hutsa zela; eta horretan erabat ados gaude berarekin. Momentu hauetan, gai horiei buruz eztabaideatzak lehengo egoeretara garamatza, eta mozioaren azalpen zatiari dagokionez, bada, EAJren legezko pentsakera da. Ez dakit beste udal batzuetan aurkeztuko zuten. Bitxia dena da EAJk mozio hori BILDUK gehiengo osoa duen udal batean aurkeztea, behar bada, nerbioa edo giharra erakutsi gura du bere aldeko ez den gehiengo abertzale baten aurrean. Nire ustez, gai hau ez da erabakigarria, eta ezta premiazkoa ere; eta herrialde honetan gertatzen ari denarekin, horrelako gauzak eztabaideatzea arazo garrantzitsuez egin beharrean, arduragabekeria galanta iruditzen zait.

Urrutia jauna: neurriez ari garenez, mozioa irakurri baino lehen erantzun didate; ez dakit zein hasi den neurria galtzen. Ikusten da beste momentu batzuetan batek lanera joateko erabakia har zezakeela, baina, momentu honetan erantzuteko gogo handia zegoen. Hitz egin duzunean (Cantero jaunari zuzentzen zaio), mozio honi erantzuteko gogo handia zegoen, osoko bilkuraren zehar aztertu diren beste askori baino gehiago. Hasi zara esaten "iruzurrez betetzea litzatekeela". Nik gogoratzen dudanez, Auzitegi Gorenaren lehenengo epaiak ez du inon esaten plaka bat ezin denik jarri edo debekatuta dagoenik, azken finean, haserrealdi soil bat besterik ez da: "hau jartzen dut, baina, nire borondatearen aurka jartzen dut". Baino, ez dio iruzurrik izan denik. Beste gauza bat da plaka bat jartzea –borondatearen adierazpen bat, beste baten antzera- iruzur eginez betetzea dela ulertzea. 1981eko legeak dioena da espainiako bandera leku publikoan, bistan... egon behar dela. Plaka bat jartzea ez da inolaz ere iruzurra egitea. Eta hasi egingo naiz. Beñat, oso ondo iruditzen zait esan duzuna, baina, zer bozkatuko duzue? Baietz edo ezetz? (Alkateak erantzun dio mozio hau geroago betetzen uzten badio, baietz). Juan Luis, ondo iruditu zait zuk esandakoa. Gauza bat besterik ez dut gehituko, esan duzu ez zaizula ondo iruditzen EAJk berak bakarrik, denon arteko akordiorik gabe, aurkeztea; konpromisoa hartzen dut hurrengo osoko bilkurarako zuk bereziki ekarri dituzun mozio guztiak ekartzera, askotan, politikoki erabilten dituzuen erakunde adierazpenak direnak. Nik gogoratzen dudanez, inolako talde politikok ez du mozio bezala aurkeztu gai hau, Gipuzkoan ez behintzat. Eta honako hau esaten duzue: ez dago egiteko borondaterik, eta hitz egiteko moduan argi ikusten da hanka sartze bat iruditzen zaizuela, dugun egoerarekin... Konpromisoa hartzen dut ere, Jose Luis, estatu politiko berria ekartzeko zuri, ikus dezazun honek Ibarretxeren planarekin ardi latxa batek ez dakit nongo astoarekin duen antza bera duela. Hau ez da Ibarretxeren 2. plana ez 20.000garrena. Hau guztiak, soilik borondatea adieraztea da, ados ez gaudela esateko haserrealdia, gure iritzia jasota geldi dadin, besterik gabe. Ibarretxe plana baldin bada, edo ez duzu plana irakurri, edo ez duzu argudio larregi horri buruz. Arazo sozialak, noski baietz! Dugun egoerarekin... Baino, kontua da, oparotasun urteetan beste guztia naziotasuna baino garrantzitsuagoa zela, orduan ere bandera jartzea garrantzi gutxienekoa izango litzateke. Egia esan, garrantzi asko edo gutxi izatea beste guztienaren bezalakoa da, zezenak nondik ikusten diren araberakoa. Nik ulertzen dut zuretzat garrantzitsua ez izatea, ordezkatuta sentitzen zarelako, ni ez; eta horregatik da gure haserraldia. Etxegabetzeen mozioa aztertu denean ez dudala ezer esan-eta, mozio honetaz gain, etxegabetzeei buruzko beste mozio bat nuen nik, eta ez nuen aurkeztu banekielako antzeko beste mozio batzuk aurkeztuko zirela. Eta, gainera, ez dut ezer esan ia dena esanda zegoelako. Egia esan, zuek mozioari buruz ez duzue ezer esan, biok egin duzuen gauza bakarra elizateetakoei beraien botua aurpegitatzea izan da. Niri ere penagarria iruditzen zait horrelako gai batean abstinentza, Alzheimerarekin abstinentu diren bezala. Kontuz! Alzheimerren gaian abstinentu egin direlako, eta niri iruditzen zait Alzheimer osasunarekin lotutako beste drama sozial handi bat dela. Hor ederki gelditu

zarete jendaurrean, baina, etxegabetzei buruz esan, ez duzue ezer esan. Eta nik ere ez, nik ez nien elizatekoei beraien botua aurpegiratu behar, nahiz eta ados egon. Barregura ematen didana da zuk, Jose Luis, (Cantero jaunari zuzentzen jarraitzen du) ni epaitza gaia aztertzerakoan luze aritzen naizelako. Niri barregura ematen dit zu nola luzatzen zaren gai horietan, inolako garrantzirik ez dutenean, eta normalean, nire kontra izaten da, EAJren kontra. Egia esateko, oso otzan ikusten zaitut gobernu taldearekin. Ordenantzetan isildu egin baitzinen, ez zenuen ezer esan, botua besterik ez, eta gero egunkarietara jotzen duzu Alkateak ez duela lidergorik eta abar esatera, nahiz eta hori egia izan. Jarreraz ari natzaizu, eta luze aritzearaz, zein aritzen den luze eta zabal zeri buruz eta nola (berriz ere aurpegiratu dio ordenantza fiskalak aztertu zirenean ez zuela ezer esan). "Zorionez Diputatu Nagusi ohia", zure iritzia da. Nik txarragoak ikusten ditut, eta gainera, zuen taldearen laguntza izan dute aurrekontuak onartzeko. Ziklo politiko berriaz ari dela. Mozio honen helburua da, batez ere, Bilduk erakus diezadan, erakus diezagun, oraindik ere nazio askapenerako banguardia izaten jarraitzen duela, heroikak, desobedientzia zibilaren hori egiten dakitenak, Arnaldo Otegik hitz egiten digun bakoitzean esaten digun hori. Esaten dutena egin dezaten, 40 urtez guri esaten aritu direna egin dezaten. Izen ere, orain, trantsizio baten gaudenez, belaunalki konstituzional guztiak apurtzen dituzte, eta Erregeari, Juan Carlos deitu beharrean, Jaun Carlos deitzen diote, eta Espainiako banderak jartzen dituzte, nahiz eta arropa zabaltzeko sokan ezkutatu. Eta, zer ikusirk du guk aurkeztea Bilduk gehiengo nagusia izanda? Hau udal guztietan aurkeztu baita, EAJk agintzen duen Gipuzkoako 4 udaletan ere aurkeztu eta onartu da, eta horrek ez dauka zerikusirik gihar soberanista erakustearekin. Nahiago nuke gobernu taldeak gihar soberanista handiagoa izango balu.

Cantero jauna: gutxi axola zaidan gaia dela... egia da. Gainera, aurrekaria garbia dago. Markel Olanoren kasua izan zenean Auzitegi Gorenak esaten badu iruzurra egin dela epaia betetzerakoan, Eskoriatzako Udalak egiten badu, gauza bera esan behar du Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia horretan oinarrituz: ez dela epaia bete, epaia akatsekin bete dela, eta horri gehitzen baldin badiozu korporazioak epaia betetzeko moduari buruzko epaia, bada, arazo bat izan dezakegu. Nik uste ez gaudela arazoak izateko ezta auzietarako ere, eta gainera, horiek ez dira islatzen jendearen eguneroko bizitzan, garrantzitsuena arazoak konpontzea da, eta plaka bat jartzeak ez ditu arazoak konpontzen. Legea bete beharko da, hemen behin baino gehiagotan hitz egin baita Auzitegi Konstituzionalaz, legea betetzeaz hitz egin da. Estatuko abokatutzarekin beste arazo bat izan gura dugu, abokatutzaren ustez orain ez delako legea betetzen, eta gainera, hori abalatzeko jurisprudentziako aurrekariak daude, eta hortara goaz, zuek zuen subironatasunari buruzko jarrerak berrestera; ezaguna zaigu. Estatutu politikoa irakurri beharko dudalari buruz, bada, ondo, irakurriko dut, ez da ezer gertatzen. Beste kontu bat da horrekin ados egotea, ez bainago ados ez lehenengoarekin ez bigarrenarekin. Hau ez dela Ibarretxe plana; ez da horrela deitzen, baina, azken finean gauza beraren parte dira. Eta luzatzeaz ari naizenean, ez naiz ari hitz egiteaz edo ez hitz egiteaz, baizik eta zertaz hitz egiten den, etxegabetzeen moduko gai batean luze hitz egiteaz. Gure kasuan, Juan Luisenean eta nirean, udal ordezkarriak izateaz gain, KALERATZEAK STOP plataforman laguntzen dugu, mozioa geure egiten dugu eta protagonismoa plataforma eman gura diogu, gizarte mugimendu horri. Guik ez dugu esaten gai politikoa eta alderdikeriazkoa denez abstinentuko garela, ez, guk geure egiten dugu mozioa. Eta nik, alderdi sozialista ordezkatuz, mozioa kentzen dut, eta zergatik kentzen dudan? Esan dudanaz damu naizelako? edo, ondoren aurkeztu den eta berarekin erabat ados nagoen mozio batek nik esan beharrekoa jasotzen zuelako? Ordenantza fiskalei buruz ez nuela ezer esan esatea, ba, mutill! Asko hitz egitea gutxi esateko, bada, ezta. Eta zure mozioan zuk zeuk esaten duzu: "Ikur bat ikur da: logo, oihal zati, margo". Zuk diozu, margo batzuk. Sentimenduez hitz egitea..., hemen ez gauide sentimenduez hitz egiteko, hemen bakoitzak gura duena sentitu dezake, eta sentimendu hori ez da alde batera edo bestera aldatu behar mozioak esanak esan edo mozioa onartu. Bakoitzaik sentidu gura duena sentituko du. Eta Udala haserraldiak izateko dagoela esatea... bada, tristea da korporazio publiko bat, udal bat, haserrealdiak izatera dedikatzea. Neurriarei dagokionez, ados nago esan duzunarekin, egin behar dena besteari entzutea da, ados egon edo ez, eta inolako keinu nabarmenik egin gabe alde batera edo bestera. Eta, niretzako gai hau iraganeko kontua dela... gizona! Bildurekiko

balakuez... ba, beno, baliteke. Dena den, guk gauza bat dugu argi: Bildurekin edo ezker abertzalearekin hitz egin dezakeen bakarra EAJ izan daitekeela eta beste guztiok ezin dugula horrelakorik egin izan den ideia hori amaitu da, kito. Guk Bildurekin eta behar denarekin hitz egingo dugu, gustatu edo ez, alderdi legal bat delako. Eta gobernu taldearekiko otzan garela, edo horrelako zerbait... nik hitz egin behar dela iruditzen zaidanean hitz egiten dut. Noski ordenantza fiskalen alde egin genuela, partida batzuekin ados ez egon arren, bozketa osotasunera egiten delako.

Alkate jauna: (Cantero jaunari zuzenduz) nik uste dut badugula eskubidea ados ez gaudenean hori esateko, horrela egin dugulako aparteko ordainsariarekin, eta egin dugu baita etxegabetzeekin ere. Nik uste dut merezi duela ahalegina egitea eta adieraztea. Uste dut horretarako ere badagoela korporazioa, haserrealdia adierazteko eta gure herriari esateko ez gaudela ados egiten digutenarekin. (Merino jaunari zuzenduz) Ados nago esan duzunarekin, Juan Luis, eta nik, garai hauek kontuan izanik, ikatza bidaltzea proposatuko nuke. Gura baduzue, elkarrekin jarriko gara eta testua idatziko dugu. (Guztiei zuzenduta) Eskubiaren eta ezkerraren, eta ezkerraren eta eskubiaren arteko eztabaidan beti tokatzen zaigu ziriren bat, esan nahi dut zarata handia bai, baina, intxa ur gutxi ikusten dela, eta gonbidatzen zaituztet gobernu taldeko edozein kiderengana jotzen eta gai ezberdinan gainean proposamenak egitera.

Eztabaidea amaitutzat jo ondoren, Alkateak bototara jarri du mozioa.

Aurkako 5 boturekin (Iregui andrea, Herce jauna, Petralanda jauna, Cantero jauna eta Merino jauna), aldeko 2 boturekin (Alkate jauna eta Urrutia jauna) eta 2 abstentziorekin (Madinabeitia jauna eta Arkauz andrea) ez da onartu mozioa.

## **23.- GALDE-ESKEAK.**

### **1.- Udal webgunean argitaratutako adierazpena**

Merino jaunak hizpidera ekarri du udal webgunean argitaratutako adierazpena, eta berak irakurrita, honela dioena: "Alkate naizen honek, Eskoriatzako Udalaren izenean, egintza hau salatu nahi dut". Jakin badakizu, ondo jakin ere, ni ados nengoela, baina, horrelako komunikatuak, Udalaren izenean, uste dut guztiok adostutakoak izan behar direla. Eta gero, oso triste nago, ni ez naizelako ordezkatuta sentitzen Udal honetan: nire bandera ez dago hemen. Errepublikako bandera, legitimoa, ez dago hemen, beraz, ni ez naiz ordezkatuta sentitzen.

Alkateak erantzun dio bere asmoa gai hori azaroko pertsonal eta gobernu batzordean aztertzea zela, baina, ahaztu egin zitzaiola. Eta gero, 10 eguneko epea zegoenez, premiaz eta presaka, udal ordezkarri gisa, testu hori idatzi zuela. Merino jauna gonbidatu du, berak horrela nahi badu, errepublikako bandera jartzera.

2.- Alkateak adierazi du behin baino gehiagotan entzun izan duen kritikari buruzko kontu bat argitu gura duela: ez duela lidergotzarik, bere taldean bakoitzak egokiena iruditzen zaiona bozkatzen duelako. Esan du udalbatzarra 11 pertsonak, 11 zinegotzik, osatzen dutela, eta 11 izateko arrazoia bakoitzak bere iritzia ematea dela, bestela, nahikoa litzatekeela talde bakoitzetik ordezkarri bat etortzea eta guztiak izenean bozkatzea.

Cantero jaunak aurpegiratu dio hemen erantzutea bere taldeak komunikabideetan adierazitako eta esandako gauza bati.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 22:40an. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.**

2012-12-20an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE  
LA CORPORACIÓN. Día 20-12-2012

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

**1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión del día 18 -10-2012

**2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 17 de diciembre de 2012 haciendo entrega de una copia del extracto de las mismas.

De forma expresa da cuenta de las resoluciones por las que se aprueban las siguientes propuesta de modificación de créditos:

**MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS N° 17**  
**PROPIUESTA DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITOS**  
**Partidas de gasto: créditos que se quieren transferir (bajas)**

Partida	Denominación	Crédito inicial	Reducción	Crédito final
0501.227.442.10.13	Mancomunidad: medio ambiente, basura	291.245,51	340,00	290.905,51
	<b>TOTAL ...</b>	<b>291.245,51</b>	<b>340,00</b>	<b>290.905,51</b>

**Partidas de gasto: créditos que se quieren añadir (altas)**

Partida (*)	Denominación	Crédito inicial	Incremento	Crédito final
0405.625.452.20.01	Máquinas del polideportivo	3.000,00	340,00	3.340,00
	<b>TOTAL ...</b>	<b>3.000,00</b>	<b>340,00</b>	<b>3.340,00</b>

\* Podrán crearse nuevas partidas presupuestarias

**MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS N° 20**  
**ESTADILLO PRESUPUESTARIO DE LOS CONCEPTOS DE INGRESOS Y PARTIDAS DE GASTOS QUE CONFORMAN EL EXPEDIENTE DE MODIFICACION DE CREDITOS MEDIANTE HABILITACION DE CREDITOS POR INGRESOS.**

**Estado de Ingresos**

Los ingresos que financian la Habilitación de Créditos son los siguientes:

Concepto presupuest.	Denominación	Previsión inicial	Previsión definitiva	Diferencia
2.0201.710.000.00.02 .	G.Vasco: Subvención nuevas tecnologías biblioteca.	0,-	3.740,00.€	3.740,00.€
	<b>TOTAL</b>	<b>0,-</b>	<b>3.740,00.€</b>	<b>3.740,00.€</b>

**Estado de Gastos**

Las Habilitaciones de Crédito propuestas afectan a las siguientes partidas presupuestarias:

Partida Presupuest.	Denominación	Previsión inicial	Previsión definitiva	Diferencia
0401.626.451.30.01	Equipos procesos información: Biblioteca.	0,00 €	3.740,00 €	3.740,00€
<b>TOTAL</b>		<b>0,00.€</b>	<b>3.740,00€</b>	<b>3.740,00€</b>

## 2.2.-Comunicaciones varias.

### 2.2.1.- INVITACION QUE DESDE LA ALCALDIA SE HACE PARA ASISTIR AL ACTO CONVOCADO POR “HERRIRA MUGIMENDUAK” PARA EL PROXIMO 12 DE ENERO

El Alcalde hace la siguiente invitación:

Hola a todos,

Con motivo de la grave situación que están sufriendo los presos vascos, el alcalde y concejales de este ayuntamiento hemos querido realizar un llamamiento para esta manifestación. Tomando en consideración los contenidos de la declaración de derechos humanos, solicitamos que se deroguen las medidas penitenciarias de excepción que se les aplican a los presos vascos.

Concretamente, solicitamos el final de la política de dispersión, pues las personas que están en prisión tienen el derecho de cumplir la pena cerca de casa. Por otra parte, solicitamos la puesta en libertad de 13 presos que tienen enfermedades graves, y que se cumpla la sentencia del Tribunal de Derechos Humanos de Estrasburgo, y así, queden en libertad 67 presos que han cumplido su condena.

La sociedad vasca ha realizado una apuesta clara a favor de la paz y del respeto a los derechos humanos, a la cual los gobiernos han hecho oídos sordos una y otra vez. Estas medidas excepcionales generan un gran sufrimiento tanto directamente a quien sufre dichas medidas como en toda la sociedad. Por otra parte, para hacer desaparecer esas medidas sería suficiente con aplicar la legalidad ordinaria.

Mientras continúen las medidas de excepción seguirán siendo habituales los siniestros, accidentes, muertes... Precisamente, mañana se cumplirán nueve años desde que la vecina de Barañain Karmele Solaguren falleció en un accidente de tráfico cuando, juntamente con su marido Jose Luis Gerra, iba a visitar a su hijo Ekain a una cárcel de Madrid. En nuestra opinión, es especialmente doloroso este aniversario, por cuanto que hoy en día son muchas las personas que sufren la misma realidad que provocó la muerte de Karmele. Por ejemplo, este año, en diecisésis accidentes, 40 familiares o amigos de presos han sufrido algún tipo de lesión de diferente grado de gravedad.

Ante todo ello, el alcalde y concejales aquí reunidos, nos comprometemos a dar los siguientes pasos:

1.- Solicitamos al Gobierno Español que aplique una política penitenciaria que respete los derechos humanos de los presos y sus allegados. Dichas medidas deberán de respetar el derecho a cumplir la pena cerca del lugar de residencia y el derecho a la salud, así como la libertad de las personas que hayan cumplido su condena y la libertad condicional de las que hayan cumplido las 3/4 partes ó 2/3 de la condena.

2.- Queremos mostrar nuestra preocupación ante el riesgo que cada fin de semana corren los familiares y amigos de los presos, y queremos mostrar nuestra solidaridad a todas las víctimas de la dispersión.

3.- Nos reafirmamos en el compromiso en defensa de los derechos humanos de los presos del municipio y de hacer todo lo que podamos para mitigar la situación de sus allegados.

4.- Manifestamos nuestra disponibilidad para lograr un amplio acuerdo social a favor de los derechos humanos y la paz, intentando siempre buscar soluciones verdaderas de manera constructiva.

